

Landa-turismoko etxe batean jakin nahi dute bezeroek zer irizten dieten haien zerbitzuei, eta, horregatik, galdesorta bat prestatu dute.

GALDESORTA

Izena: Adina: Sexua:

Baloratu 1etik 5era hurrengo zerbitzuen kalitatea.

Helgarritasuna: Janaria: Altzariak:

Garbiketa: Jarduerak:

Landa-turismoko etxeko arduradunak 30 erantzun ditu, galdesortari erantzun dioten 30 bezeroenak, eta erantzun horiekin hurrengo taula egin du, aztertutako aldagaietara bezeroek zer irizten dieten aztertzeko:

	Maiztasuna				
	Helgarritasuna	Janaria	Altzariak	Garbiketa	Jarduerak
1	0	0	0	5	4
2	0	4	0	10	6
3	15	20	2	15	10
4	10	6	20	0	10
5	5	0	8	0	0
	30	30	30	30	30

Ikus dezagun nola aztertzen diren, erdiko parametroen bidez (batezbestekoa, moda eta mediana), banaketa horietako baten balioak; esate baterako, helgarritasunari dagozkionak.

Batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko, taula erabil dezakegu, eta honela osatu:

	Helgarritasuna (maiztasuna)	f.x
1	0	0
2	0	0
3	15	45
4	10	40
5	5	25
	n=30	Batura=110

$$\text{Batezbesteko aritmetikoa} = 110/30 = 3,67$$

Moda maiztasun handienari dagokion balioa da: kasu honetan, "3" da.

Medianak banaketa zatitzen du, alde bakoitzean balio kopuru berbera utzita.

	Helgarritasuna (maiztasuna)	Maiztasun metatua
1	0	0
2	0	0
3	15	15
4	10	25
5	5	30
	n=30	

Mediana 3 da, 15 balio baitaude 3koak edo txikiagoak eta beste 15 balio 3 baino handiagoak.

